

# BESTELAKO XEDAPENAK

## LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

### 4052

*EBAZPENA, 2022ko abuztuaren 25ekoa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, zeinaren bidez jendurrean jartzen baita «Usurbilgo geltokia eraikitzeako proiektuaren eguneratzeak» ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda.*

2022ko uztailaren 5eko Ebazpenaren bidez «Usurbilgo geltokia eraikitzeako proiektuaren eguneratzea» onetsi zen.

Eraikuntza proiektu honen helburua da Euskal Trenbide Sarea-ETSren Usurbilgo Geltokia modernizatzeko lanak zehazteko beharrezko dokumentazioa ematea.

Proiektuaren barruan bideak konponduko dira eta eraikin berria eraikiko da beste toki batean. Konponbide hori egokitzat jo da egungo egoeraren problematika aztertu ostean. Halaber, sarbideak erreformatuko dira eta geltokiaren ingurunea urbanizatuko da.

Lursailak lortzeko eta ukitutako ondasun eta eskubideak kudeatzeko, proiektuan ondasun eta eskubide horiek xehatzen dira. Horretarako, desjabetzeen eranskinean lurzatien zerrenda eta planoak daude.

Organo honek eskumena du garraio-azpiegituraren arloko jarduerak betearazteko beharrezkoak diren desjabetze-espedituentz izapidetzeko, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 16.2.c) artikulua xedatzen duenaren arabera.

Trenbide sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legearen 6.2 artikulua xedatutakoaren arabera, beste lursail batzuk erabili beharra dakarten trenbide-lineen, horien tarteen edo tren azpiegituraren beste elementu batzuen proiektuak edo lehendik zeuden azpiegiturak aldatzeko proiektuak onesten direnean, onespenez berekin ekarriko du proiektua onura publikokoa edo gizarte-interesekoa dela, lursailak okupatu behar direla eta okupazioa presakoa dela deklaratzeko, ukitutako eta identifikatutako ondasunak eta eskubideak nahitaez desjabetzeko.

Nolanahi ere, proiektua onesteak inplizituki berekin dakarren arren proiektuak ukitutako ondasunak eta eskubideak okupatu beharra, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 17.2, 18. eta 19.2 artikuluek ezartzen dute ondasun eta eskubide horien xehetasunak azaltzen dituen zerrenda egin behar dela eta jendurrean jarri behar dela, nahi dutenek alegazioak eta datuak aurkeztu ahal izan ditzaten, okerrak zuzentzeko eta interesdunak zeintzuk diren ondo zehazteko.

Hortaz, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainerakoak ikusirik, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Jendurrean jartzea «Usurbilgo geltokia eraikitzeako proiektuaren eguneratzeak» ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda, ebazpen hau azken aldiz argitaratu eta hurrengo hamabost (15) egun balioduneko epean alegazioak aurkeztu ahal izan daitezela, okerrak baldin badago zuzentzeko, hala ezartzen baitute Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko

2022ko irailaren 19a, astelehena

Legearen 19.2 artikulua eta horrekin bat datozenek. Alegazioak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Garraio Azpiegituren Zuzendaritzan aurkeztu beharko dira (Donostia kalea, 1 – Lakua 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Aipatutako epean, ondasun eta eskubideen zerranda Usurbilgo udaletxeko iragarki-oholean ere erakutsiko da jendaurrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuaren 25a.

Garraio azpiegituren zuzendaria,  
MARÍA DOLORES DE JUAN DE MIGUEL.

2022ko irailaren 19a, astelehena

## ERANSKINA

Finka zk.	Katastroko erref. eta udalernia	NAN/IFZ/AIZ/Pasaportea	Jabea	Eragin mota (m <sup>2</sup> )			Izaera
				Erabateko desjabetzea	Zortasun iraukorra	Aldi baterako okupazioa	
001	7791000 Usurbil	****7800*	Usurbilgo Udala	274	79	84	Bideak San Esteban kalea
002	7691000 Usurbil	****0000*	Gipuzkoako Foru Aldundia	0	0	355	Bideak N-634
003	7691000 Usurbil	****7800*	Usurbilgo Udala	38	1.470	3.324	Bideak Altzezarra kalea
004	7791000 Usurbil	****7800*	Usurbilgo Udala	383	626	975	Bideak Zingirategi Industrialdea
005	7791000 Usurbil	****7800*	Usurbilgo Udala	175	0	0	Instalazioetarako sarbide asfaltatua. Baskula-hobia
5 INT	7791000 Usurbil	****5999*	Grupo Ingemar, S.L.	0	0	175	Instalazioetarako sarbide asfaltatua. Baskula-hobia
006	7791186 Usurbil	***6202** ***8897** ***4532** ***6635** ***9933** ***7669** ***7256** ***6210** ***0809** ***8995** ***8995** ***5258** ***9276** ***9276** ***3400** ***7883** ***4934** ***7009** ***9465** ***6209** ***6242** ***3260** ***9096**	Murua Lezama Leguizamón, Antonio M. <sup>a</sup> Murua Lezama Leguizamón, M. <sup>a</sup> Carmen Murua Urruticoechea, Laura Rita Murua Urruticoechea, Antonio Murua Urruticoechea, Juan Andrés Murua Urruticoechea, Silvia M. <sup>a</sup> Orbe Murua, Ana M. <sup>a</sup> Orbe Murua, Antonio M. <sup>a</sup> Orbe Murua, Francisco De Borja Orbe Murua, M. <sup>a</sup> Pilar Orbe Murua, Pablo Manuel Orbe Murua, Casilda Orbe Murua, Juan Orbe Murua, Pedro Pascual Orbe Murua, Tristán Orbe Murua, Vicente Rezola Murua, Begoña Rezola Murua, Covadonga Rezola Murua, Eugenio Jose Rezola Murua, M. <sup>a</sup> Carmen Rezola Murua, M. <sup>a</sup> Mercedes Rezola Murua, M. <sup>a</sup> Pilar Rezola Murua, María	0	0	576	Saroe jauregiko zuhaizti lorategia.